

Arimen Gaua indartsu loratzen ari da



Andoaingo Gau Beltzak indar bizia hartu du, lehen bi edizioetan.
Mugarri bilakatu da Andoaingo kultur agendan, euskalgintzari esker / 8-11



**Etxeberri plazan
hasi eta San Juan
plazan amaitu zen
Urnietako
Gau Beltza** / 6-7



**Negozia itxi berri
duen Bikoitz
argazki-dendako
Joxe Mari Igarategiri
elkarrizketa** / 4-5

**Irati Aranguren
Andoaingo
Txirrindulari
Eskolako kideari
elkarrizketa** / 12

**Andoaindik eta
Urnietatik azaroaren
4ko manifestaziora
joateko deialdia
luzatu dute** / 14



ASPILLA
ekoizpen ekologikoa

677 110 541
aspilla.eko@gmail.com
f Aspilla Eko

Babeslea:





"ETak kitto esan zuenean prozesu bat abiatu zen, eta elkarbizitza egoerak modu naturalean garatu dira ondoren". AIURRI

"Zail ikusten dut Espainiako eta Nafarroako gobernuko argazkia Gasteizen errepikatzea"

HERME GONZALEZ URNIETAKO PSE-EEKO BOZERAMAILEA

Euskal Herriko eta Espainiako politikaz mintzatu da, Pedro Sanchezen inbestidura saioaren atarian; baita martxoan ETaren mehatxuarekin bizi izanaz egindako aitortzaz

Andoni Urbistondo URNIETA

Elkarrizketa honetako lehen zatia urriaren 20ko Aiurri aste-karian argitaratu zen (792. zenbakia. 8-9. orrialdeak). Bertan herriko udalgintzaz, hogeita bost urteko jardunaz mintzatu zen PSE-EE alderdiko zinegotzi eta

bozeramailea. Bigarren zati honetan PSOE eta EHBilduren arteko harremanak, hurrengo urteko ekainean egingo diren EAEko hauteskundeak, eta hilabete batzuk atzera ETaren mehatxuaz egin zuen aitortzaz mintzatu da Gonzalez.

25 urte daramatzazu udalgintzan, erdiak biolentziaren mehatxuarekin, beste erdia ETak aktibitate armatua bertan behera utzi ostean. Ze orotzapen dituzu?

Zinegotzi jardunean hasi eta berehala jarri zidaten bizkartzaina, 2000 urtean edo. Ez dut

zehatz apuntatzen horrelako gauzarik. 11 urte egon nintzen mehatxatuta. Bi bizkartzainekin ibili nintzen, eta egunerokoa mugatzen dute erabat, ezin duzulako bizkartzainak eduki aurretik egiten zenuen ezer egin. Egunetik gauera pasatzea bezalako aldaketa da. Ulertze aldera, edonork egin ditzakegun gauzak egitea debekatzen dizute, posta kutxa ireki eta zaborrak botatzera joan, adibidez. Askatasun hori ebasten dizute, baina nahiko ondo moldatu ginen. Ginen diot, niri eta beste hainbat kideri jarri zietelako bizkartzaina. 2011ko urrian biolentziaren bukaera iragarri zuen ETak, eta jende guztiak zoriondu egin ninduen kaletik, kontentu egongo nintzela eta beste. Ni ez nengoen ase beteta, ez bainintzen fio ETak hartutako erabakiaz. Ezin da ahaztu aurrez zirela. Gero gerta zitekeen hartutako erabakia denek ez betetzea... Zuhurtziaz hartu genuen erabakia, eta bizkartzain bakararekin babesa izaten jarraitu genuen hiruzpalau hilabete gehiagotan. Epe hori pasata ETak hartutako erabakia tinkoa zela ziurtatu zen, eta orduan bai, asko poztu ginen. Mehatxuari eutsi genion pertsonen garaipen moduan ikusten ditut egun haiek. Merezki izan zuen eustea, irautea.

Pasa den martxoan barrenak hustu zenituen, jendartearen aurrean, Lekaion, mehatxatuta bizitzeak zer suposatu zuen zuretzat.

Bai. Biluztu egin nintzela esan duzu, eta ondo esan, horretarako prestatu bainintzen. Inori kontatu ez nizkion gauzak kontatu nituen. Nire familiak, bertan zegoen alabak ez zeukan han esango nituenen berri. Pasatakoak zokoratzen dituzu, baina ahaztu ez, ezin direlako ahaztu. Unea iritsi zen eta bota nuen. Barrutik ateratzeko beharra sentitu nuen. Urduri sentitu nintzen hasieran, baina jende dezente joan zen ekitaldira, esparru politiko eta sozial guztietako lagunak, eta gustura sentitu nintzen. Zenbaitzuk hauteskundeekin zirikusia zuen erabakia izan zela leporatu zidaten, baina ez zen hala izan. Unea iritsi zen, eta etorri, sentitu bezala bota nuen. Barrutik ateratzeko beharra sentitu nuen, jendarteak jakin zezala zer bizi izan genuen. Aurretiazko lana

ere egon zen, lanketa garrantzitsua. Hiritar talde bat dago herrian, Elkarbizitza eta Bakeaz lanean aritu dena, ezkutuan baina tinko. Talde horretan askok gure istorioa, gure bizipenak kontatu ahal izan ditugu, eta aitortza horrek ikaragarri lagundu zidan azken pausoa eman, eta nire bizipenak publikoki kontatzeko. Aurrez, eta intimitatean, bizipen horiek beste lagun batzuekin partekatu izana funtsezkoa izan zen. Pribatuan botatakoak entzun zituztenek ez ninduten juzkatu, entzun eta iritzi trukaketa egitera mugatu ziren, eta hori oso lagungarria izan zen niretzat.

Pertsona bera al zara, martxoko aitortza publiko horren ondoren? Esan nahi da: Herme Gonzalez ezberdinak al dira, aitortza baino lehenagokoa, eta aitortza publiko hori egin ondorengoa?

Ezberdina ez, ez naiz aldatu, baina atsedeen handi bat harztearen parekoa izan zen. Moxila astun bat neraman bizkarran, kendu nuen, eta gustura geratu nintzen. Gainera, behin aitortza eginda jendearen hitz goxoak jaso nituen, ausardia izan nuelako. Nik neuk onartu gabeko gauzak onartu zizkidaten, eta hori ikaragarria izan zen niretzat. Euskal Herrian asko egon baita isilik geratu eta ondokoaren larruan jartzeko ahalginik ez egitea.

Enpatia hitza entzuten da han eta hemen, batzuk berea bakarrik ikusten dutela, besteen sufrimendua ikusteko itsu daudela... Zertan gara, zuen mehatxu egoera bukatu eta 12 urtera?

ETak kitto esan zuenean prozesu bat abiatu zen, eta elkarbizitza egoerak modu naturalean garatu dira ondoren. Hori izan da nire esperientzi propioa. Maila politikoan, pasa den legegintzaldian EHBildu alderdiarekin harreman emankorra eduki genuen udaletxean. Kalean nirea ideia politikoetatik arrunt urrundauden herritarrekin topatzen naiz, eta agurtu, edo kafe bat hartu. Gurean izan dugun egoera politikoan, talde hori definitzeko beste aldea terminoa ateratzen zait, baina ez ditut hitz horiek erabili nahi (la otra parte esaten du gaztelaniaz). Eraldaketa berez gertatu dela esango nuke, modu naturalean. Halere, zeregina geratzen da oraindik: biktimen onarpena, adibidez. Biktima guztiak, hau nabarmen-



Herme Gonzalez eta Consuelo Frutos, Urnietako udaletxean. Biek ere gobernu ardurak dituzte, agintaldi honetan. PSE-EE

du nahi nuke, ez alde batekoak bakarrik. Hori falta da.

Eta hori iritsiko den unea gertu dago, urrun?

Alderdi politiko guztietan dago pixka bat atzean geratzen den jendea. Ez dakit nostalgikoak diren, edo nola deitu. Batzuk prest daude eskailera bat igotzeko, eta beste batzuk ez. Nik inori ez diot gorrotoa eduki inoiz. Gorroto, herra hori, iragana atzean uzteko kemenik ez edukitzeak mina egiten dio pertsona jakin horri.

Urnietan EHBildurekin harreman ona izan zenuela esan berri duzu. Hilabete pasa atzera argazki historikoa ikusi genuen: Pedro Sanchez Espainiako presidentea EHBilduko kideekin batzartzen Kongresuan. Nafarroan ere ezker abertzalea PSNko Maria Chiviteren gobernu ahalbidetzen ikusi dugu. Madrilen, edo Iruñean pasatzen dena, baina,

ez da Gasteizen pasatzen, momentuz. Zergatik? Ze iritzi duzu PSE-EEko kide bezala?

Beno, alderdi politiko bateko militantea zaren unetik alderdiko diziplina onartzera behartuta zaude. Egun EAJ eta PSE-EEren arteko akordio zabala dago Euskadin, urte askotakoa, eta hori onartu beharra dago. Zergatik leku batzuetan bai, eta besteetan ez? Lehen esan dizudanaren harira, uste dut zerikusi zuzena duela zenbait tokitan oraindik ezberdin pentsatzen duena, edo arerio politikoa ez dela onartzen, edo batzuk ez

dutela onartzen, eta hor eman behar dira pausoak. Nire ustez, EHBilduk errekonozimendu eta barkamen eskaera bat egin behar luke. Gure alderdiak aspaldi esan zuen, tiroak ez, elkarrizketa bai, eta Kongresuko argazki historiko horrek erakusten du prozesu hori gauzatzen ari dela.

Posible ikusten duzu PSE-EE eta EHBilduren arteko akordioa Gasteizko Legebiltzarrean?

Beno, Eneko Andueza idazkari nagusiak Bilbon egiten du lana, ez daukat harreman zuzenik berarekin, baina esango nuke

"IRAGANA ATZEAN UZTEKO KEMENIK EZ EDUKITZEAK MINA EGITEN DIO PERTSONA JAKIN HORRI"

"EAJ ETA PSE-EEREN ARTEKO AKORDIO ZABALA DAGO EAE-N, ETA HORI ONARTU BEHARRA DAGO"

aukera hori urrun samar ikusten dudala gaur-gaurkoz. PSE-EE alderdiko militante moduan hauxe da nire iritzia: posible ikusten dut PSE-EE eta EHBilduren arteko adostasun hori. Madrilen gertatu bada, Nafarroan eman bada, zergatik ez Gasteizen? Aztertu beharreko gaia izango da, momentua iristen denean. **PSOE beldur al da EHBildura hurbiltzeak Espainiar jendartearen aurrean ekar diezaiokeen albo kalteari?**

Albo kalteak daudela ukatzea tontakeria litzateke. Badaude, noski. Hemen modu naturalean ematen da PSE-EE eta EHBilduren arteko harremana, baina Espainian ez. Kaka asko zabaltzen dute zenbaitzuk, eta Espainiako leku batzuetan ETA oraindik existitzen dela pentsatzen dute. Hemen mezu horrek ja zentzurik ez dauka. Kongresuko argazkia oso garrantzitsua da. Hainbestera, momentuz EHBildu alderdia dela PSOERI babesaren eman-go duela ziurtatu duen bakarra. Argi eta garbi esan du, gainera. Gobernuan PSOE alderdiarekin dagoen alderdiak, Sumar-ek. momentuz eman ez dion babesaren (Sumar eta PSOE alderdiek pasa den astean lotu zuten hitzarmena, Gobernu koalizioa adostuz). **Itzuraz azaroaren 13ko astean izanen da inbestidura saioa. Pedro Sanchez-ek gaingaituko al duela pentsatzen al duzu?**

Zalantzak ditut... ERC eta Junts alderdiek borroka handia dute euren artean, Katalunian nor

nagusitzen den duten borrokan, eta soka sobera tenkatzen ari ote diren... Ez nuke nahi haustea. Sanchez konfiantzaz sumatzen dut, baina ez dakit itzalpean ze negoziaketa dauden.

Urteek aurrera egiten duten heinean, eta Gobernu akordioak osatzerako garaian, gai politikoak garrantzia galdu, eta sozialak indarra hartzen ari direla esan genezake? Egoera hori agerikoa dela esango nuke. Pasa den legegintzaldian Kongresuan onartutako lege asko EHBilduren aldeko botoekin izan zen, eta horietako gairen batean EAJ bera aho bete hortz utzita. Gai sozialetan ezkerreko alderdiak gara PSOE eta EHBildu, eta bat egiten dugu gai askotan.

Euskadiko hauteskundeak aurreratuko ote diren susmoa zabaldu da azken astetan. Zer gerta liteke? Ez nituzke aurreratuko, batez ere Udal eta Foru hauteskundeetan, eta Espainiakoetan gertatu dena gogoan. EHBilduren tsunami ikusi da, eta Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan ere antzeko zerbait gerta daiteke. Tsunamia dator, eta EAJren kaltetan izango da. Aurreikuspen hori egiteko azken bi hauteskundeetan gertatutakoa hartzen dut oinarritzat. Espainiako hauteskundeetan EAJ hirugarren geratu zen EAEn, eta hori inoiz ez da gertatu Euskadin. Aldundietan ere PPren babesarekin gobernatzen ari dira jeltzaleak, eta zerbait egin behar dute, zerbait egin badezakete.

"MODU NATURALEAN EMATEN DA PSE-EE ETA EHBILDUREN ARTEKO HARREMANA, BAINA ESPAINIAN EZ"

"EUSKADIKO HAUTESKUNDEETAN ERE EHBILDUREN BOTO TSUNAMIA EMAN DAITEKE"



Urnietako
udala



Igarategi urriaren 31n itxi zuen betirako Bikoitz argazki-denda. AIURRI

"Argazkilaritzak odol-zainetan jarraituko du nigan"

JOXE MARI IGARATEGI BIKOITZ ARGAZKI-DENDA

Igarategi argazkilariak urriaren 31n itxi zuen argazki-denda, betirako. Iñigo Hernaezek eta biek ireki zuten denda, 1994eko apirilean

Xabier Lasa ANDOAIN

Iñigo Hernaezek eta Joxe Mari Igarategi 1994an apirilean ireki zuten Bikoitz argazki-denda. Igarategi bakarrik aritu da negozioarekin azken urtetan, eta betirako itxi ditu atea egunotan. Egindako ibilbidea, ixtera bultzatu duten arrazoiak, argazkigintza, Andoaingo merkatarien

egoera izan ditu hizpide, besteak beste, Aiurri astekariari emandako elkarrizketan.

Zeintzuk izan dira pertsiana betirako jaisteko arrazoiak?

Arrazoiak kateatu egin zaizkidala esango nuke. Pandemiarekin batera, tabernek eta jatetxeek ez ezik, gainerako merkatariek ere atea itxi behar izan geni-

tuen, diru sarrerak hutsera jaitsi baitzitzaizkigun. Gastuek, berriz, berdin-berdin jarraitu zuten, autonomoen zerga, argia, errenta... Zer edo zer egin beharra zegoela-eta, kurrikuluma han-hemen bidaltzen aritu nintzen, eta Adunako lantegi batek deitu zidaten. Han nabil geroztik. Gaueko txanda da,

biltegiko lana, nekagarria da, baina lanpostu finkoa dut eta pozik nago.

Jakina, bi lanbideei aurre egin behar izan diet azken hiru urteetan, eta latza da hala bizitzea. Porru eginda iristen nintzen asteburura, ez nengoen ez inorentzako ez ezertarako, sofan etzanda jarrita. Bizitzako martxa horri ezin nion gehiago eutsi. Eta bien bitartean, pandemia atzean utzi genuen arren, ez dira hobetu argazkilaritzako ogibideak iraganean zituen baldintzak, okertu baizik. Ezjakintasuna eta ziurgabetasuna da nagusi.

Azal zenezake ezjakintasun hori zertan datzan?

Ez da garai batean bezala, bazenekiela noiz eta zer lan izango zenuen; urtea antola zenezakeen, aurretik egindakoari helduta. Egun, kolpeka egiten da lana; esate batera, jaunartze aldia datorrenean, ito beharrean ibiltzen zara, baina gero, ez dakizu noiz arte ez zaizun beste ezer etorriko! Ezkontzekin ere, igual hilabete bat lehenago etorriko zaizu bikotea libre zauden galdetuz, ez iraganean bezala urte bete aurretik. Horrela ezinezkoa da bizimodua ateratzea eta bizitza antolatzea!

Bokazioz naiz argazkilaria, maite dut, eta denbora puska batean beharbada jarraituko nuke era horretan. Baina gorputzak ezetz adierazten zidan, eta, batez ere, familia-bizitza egin nahi dut.

Alaba negatiboekin-eta dabil interesa piztuta azken aldian, baina ez nuke animatuko mundu honetan sar zedin, oso eze-gonkorra baita.

Argazkigintza maite duzula diozu.

15 urterekin eduki nuen lehen argazki kamera, analogikoa, anai zaharrenak pasa zidan. 1985eko elurteekin egin nuen nire lehenbiziko erreportajea, eta beti edukiko dut gogoan hori. Geroztik, etengabeko formazioari heldu nion. Izan ziren urte batzuk argazkira erabat lotuta igaro nituenak; goizez akademia batean ikasten nuen, eta, arratsaldeetan, Andoaingo ESCIVI Zine eta Bideo eskolan aritzen nintzen.

Denda itxi dut urriaren azken egunean, eta ogibide horri agur esaten diodala esan nahiko luke horrek. Nolanahi ere, argazkilaritzak odol-zainetan jarraituko du nigan, argazkilaria izaten

jarraituko dut beti. Nire aisialdi tarteak hartuko ditut etorkizunean, buruan dauzkadan argazki paisajistiko landu horiek egiteko, esate batera.

la 30 urtez argazkigintzarekin aterra duzu bizimodua. Iñigo Hernaezekin hasi zinen.

Halaxe da. Iñigok eta biok elkarrekin egin genituen ikasketak ESCIVI eskolan, eta, ondoren, negozioa irekitzea erabaki genuen. Horrela, Bikoitz denda, Kale Nagusiko 19an ireki genuen, 1994ko apirilaren 19an.

Urteen poderioz, Zumea plazan zabaldu genuen bigarren denda. 1995-1996 aldera jada hasia zen zabaltzen mundu digitala, eta biok hiru bat urtetara egin genuen erabateko jauzia, Zumea Plazan 2005ean denda irekiz, esan bezala. Mundu berritzailea zen guretzat, eta zetorkigunaz lehenbailehen jabetzeko hainbat hitzaldietan eta ikastarotan murgildu ginen. Aldi berean, diseinu grafikoaren munduan trebatzen ari zen Nuria Castaño gurekin hasi zen lanean, eta izugarritzko inbertsioa egin genuen makina eskaner bat erositara.

Egin kontu, erabateko aldaketa iraultzailea izan den sistema analogikotik digitalerako prozesu hori guztia bete-betean bizitzea egokitu zitzaigun. Alegia, karreteko oporretara eraman eta itzuleran dendan errebelatzeko uztetik, oporretan bertan lagun eta ezagunei bidaltzera! Zumeako dendak oso ondo funtzionatu zuten lehenbiziko urtetan. Baina, gerora, ateratako argazkiak gero eta gutxiago errebelatzea izan zen digitalizazioak ekarri zuen ondorioetako bat gizarte-joeretan. Horrek, denda itxi beharra eragin zigun sei-zazpi urtetara. Osasun kontuak zirela-eta, Iñigok ere negozioa utzi egin zuen, eta era horretan, bakarrik egin ditut azken hamar urteak.

Orain hiru bat urte, Kale Nagusia 19ko dendatik, Kale Nagusia 51ko dendara igarotzeko erabakia ere hartu behar izan nuen. Azken hori txikiagoa izan arren, nahiko espazioa bazeukan argazkilari batentzat, eta, gainera, errenta ere merkeagoa eskatzen zuten.

Zein erreportaje mota landu dituzu hiru hamarkada hauetan?

Ezkontzak, jaunartzeak, argazki-karnetak... Ezkontzekin izugarri egin genuen lan 2003-2004 arte



1994az geroztik egindako argazki bilduma osoa, Andoaingo Udal Artxiboan dohaintzan emateko asmoa dauka Igarategik. AIURRI

gutxi gora behera. Egin kontu, *baby boom* belaunaldiko bikote ugari ezkondu zela XX. mendearen hondarrean eta XXI. mendearen hasierako urteetan! Gu ere puntu demografiko harrigarri horretan jaiok gara, ahoz ahoz zabaltzen zen gure zerbitzua, eta lagun eta ezagun asko hurbiltzen zitzaizkigun erreportajeak eskatzeko. Gure artean txantxetan esan ohi dugu denboraldi hartan, egungo Facebookaren

"HAMABOST URTEREKIN EDUKI NUEN LEHEN ARGAZKI KAMERA, ANALOGIKOA"

edo Instagramaren funtzioa betetzen zuela gure Kale Nagusia 19ko dendak! Zenbat herritar ez ote zen igaroko bertatik, kalean gora nahiz kalean behera ibili, eta gure erakuslehoari begiratu bota, ea nor ezkondu zen kuxkuxeatzeko!

Jaunartzei dagokionez, oso oroitzapen onak pilatu zaizkit haurrekin lan egin behar izan dudana aldiro. Oso ondo moldatu izan naiz gaztetxoekin, pazientzia eta konfiantza behar baita horiekin erreportaje txukun bat egiteko. Maiz, nahikoa izan daiteke minutu bat argazki ederrak ateratzeko, nahiz ordu beteko saioa egin berarekin. Minutu hori harrapatzen jakitea da sekretu bakarra.

Gizarteko gertakizunak ere jorratu izan dituzu...

Bai, batik bat inauteriak edo Errege Magoen kabalgatak. Portzierto, 25 urte jarraian egin izan ditut kabalgatak. Noiz eta, urtarrilaren 5ean, nire urtebetetzean!

Egundoko argazki ondarea pilatuko zenuen hiru hamarkadetako ibilbidean, ala?

Milaka eta milaka argazki analogiko karpitetan gordeta dauz-

"KALE BIZITZARI EUTSI NAHI BADIOGU, HERRIKO DENDETAN KONTSUMITU BEHAR DUGU"

kat, txukun katalogatuta; eta aparte, kontu ezin ahala argazki digitalak, hainbat diskoetan. Behin negozioak kito eginda, zer egin ondare horrekin guztiarekin? Pena izugarria ematen zidan harrika botatzeak, eta Andoaingo Udal Artxiboan dohaintzan uztea erabaki dut. Artxiboko arduradunekin hitz egin dut, eta hitzarmena laster egitea espero dugu. Herritarren zerbitzura, beren eskura geratuko dira era horretan, nahi dutenean kontsulta dezaten, eta egokia iruditzen zait irtenbide hori ematera argazkiei. Argi dago, argazkiek indarra irabazten doazela denboraren joanarekin.

Gainera, Bikotzen bildumak, orain arte Udal Artxiboak jasotako dohaintzei jarraipena emango lieke, kronologikoki. Hain zuzen, egin behar da kontu Truchuelo anai argazkilariek dohaintzan emandako argazki-ondareak 1995 urte arteko garaia hartzen duela.

Truchuelo anaiak aipatu dituzu. Instituziotzat hartzen ziren herriko argazkilaria profesionalak, iraganean.

Hala ziren, eta Iñigo eta biok hasi ginenean ere, oraindik sentitzen genuen argazkilariekiko errespetu eta balorazio hori. Baina pikutara joan da kontsiderazio hori denborarekin, argi dago. Gaur, mugikor edo kamera digital baten jabe den orok uste du argazkilaria dela. Klik egitera mugatzen dela argazkilaria izatea.

Sintomatikoa da ezkontzetan geratzen ari dena, esate batera. Estatu Batuetatik heldu da ospakizun osoa antolatuko duen *wedding planner*a fitxatzea azken urtetan, eta era horretan, eskarmentua daukan argazkilaria profesionalaren ardura murrizten ari dira. Bigarren planoan gera-

tu eta aginduak betetzea besterik ez zaio uzten argazkilaria.

Teknologia berriak, adimen artifiziala... Zer ez ote datorkio argazkigintzari...

Gazteek irudien tratamenduan, ordenagailuetako aplikazioen erabilpenean... Mila buelta emango dizkigute. Marabillak egingo dituzte diseinuen arloan ziurrenik, eta zer esanik ez aurrerantzean adimen artifiziala zabaldu ahala. Baina beti nagusituko da argazkilaria begiratu, sentimendua. Islatzen duen argazki hori. Edo nagusitu beharko luke, behintzat; hala nahiko nuke. Eskola zaharrekoa naiz, eta argazkia ateratzeko orduan, denbora gehiago egingo dut unea, tokia, kanpoko argia topatzen eta kaptatzen, gero ateratako irudiari tratatzen eta erretokeak egiten baino.

Nola ikusten dituzu Andoaingo merkatarien egoera eta etorkizuna?

Zaila daukate, zaila daukatenez! Zerbait erosi behar dugunean, internetera jotzen dugu lehen begiratu egiteko, denda aproposa etxe azpian eduki arren eta bertan arreta ezin hobea eta gertukoa izan arren! Oso zaila daukate leihobirtual horrekin lehiatzea!

Guri zera gertatu zitzaigun argazki-dendan: azken urteetan uko egin behar izan geniola kameraren salmentari, gaur 10 balio duenak bihar 9 balio dezakeelako. Gainera, zenbait dendarik adierazi izan didate nola ari den zabaltzen joera itsusia zenbaiten artean, alegia, "gure dendara sartu, arropa probatu, taila zerbakia hartu, eta gero kanpoan erosi". Baldin eta herriko kale bizitzari eutsi nahi badiogu, herriko dendetan kontsumitu behar dugunaren kontzientzia hartu beharko dugu, nahiz eta, tarteka, zertxobait garestiago izan. Jai dugu gainerakoan!

MANIFESTAZIOA

AZAROAK 4
17:00
EUSKALDUNA
BILBO

OLDARRALDIAREN
EUSKAREKIN
BAT
EUSKARAZ
BAT
AURREAN



www.aiurri.eus



Gau Beltza Andoainen eta Urnietan

Albisteak, argazki-bildumak, bideoak
KLK BAKARRERA



Etxeberri plazan hasi eta San Juan plazan amaitu zen ospakizuna. Irudian ikusten denez, jende ugari hurbildu zen. AIURRI

Arimen Gaua biziberritu zuten Urnietan

Arimen Gaua ospatu zuten Urnietan joan den asteazken iluntzean. Salestarrak-Magale ikastetxeak antolatuta, urnietar guztiei begira. Etxeberri plazan abiatu zen jaia, eta San Juan plazan amaitu

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Itzalitako kalabazak piztu zituzten joan den asteazken iluntzean urnietarrek. Gau Beltza ospatu zen herrian, Salestarrak-Magale ikastetxeak antolatuta. Hala, bigarren urtez, etxeko ohitura zaharrak berreskuratu eta iluntasuna bizitzeko parada izan zen udalerrian barrena. Aurpegiak zurituta edota zapi zuri batekin burua estalita gerturatu ziren bizilagunak Etxeberri plazara arratsaldeko 18:30ean hasita. Iluntzearekin batera ekin zioten egitarauari, eta abiapuntutik San Juan plazara, askotariko ezusteko atseginez gozatzeko aukera izan zuten urnietarrek.

Munstroak, armiarma erraldoia, dantzak, danbor-joleak, trikitalariak... Gau Beltza modu ezin hobean ospatu zen Urnietan, Lehen Hezkuntzako nahiz Bigarren Hezkuntzako ikasleen eskutik. Ipuin kontalariak ere izan ziren San Juan plazan, baita txokolate beroa eta gaztainak ere. Bien bitartean, beldurraren pasabidean murgildu ziren asko eta asko, oihuen eta izualdien artean. Jende askoren arreta deitu zuen hitzorduak, plaza herritarrez beteta baitzegoen. Aitzakia polita, ohiturari eusten jarraitzeko.

Urnietako Gau Beltzaren argazkiak Aiurri.eus gunean ikusgai daude.



Banaka hartuta, mozzorro ederrak aurki zitezkeen. AIURRI

Beldurraren pasabidea, elizako arkupeetan. AIURRI



Exeberri plazatik kalejira irazi ziren San Juan plazara. AIURRI



Gaztain-erreak eskaini zituzten plazan. AIURRI



Txokolate beroa eskaini zuten Kontzejupean. AIURRI



Salestar-Magale ikastetxeak antolatutako ospakizuna. AIURRI



Arimen Gaua askotariko moztarok ikusteko aukera bilakatu zen. Gau Beltzaren argazki-sorta ikusgai dago Aiarri.eus webgunean. AIURRI



Datorren Aiarri astekaria, azaroaren 17an
Bitartean, edizio jarraitua webgunean: artikulak, agenda, bideo-sorta, argazki-bildumak
WWW.AIURRI.EUS



Leire Nuñez, Xune Ubeda, Oihana Arruti, Oihana Sanchez eta Juanjo Elordi aktore lanetan. Haien kontakizunaren eskutik murgildu ziren Goikoplazako ikusleak, Arimen Gauan. AIURRI

"Kandelak piztu, iluntasuna bizi"

Zezen suzkoak amaiera dotorea eman zion Gau Beltzari. Aurretik, Akerrak Okerrak kalejira ikusgarria izan zen. Urkiren emanaldia aurtengo berrikuntza izan da eta, aktoreen saioren bidez, Goikoplazan elkartu zirenek jaiaren zentzua zein den barneratu zuten

Erredakzioa ANDOAIN

Azala eta mamia, bietatik du Andoaingo Gau Beltzak. Sua, piroteknia, mozorroa, dantza... estetika lantzeko ezinbesteko osagaiak dira. Zer da Arimen Gaua izenburupean ospatzen duguna? Goikoplazako antzezlan laburrak mamiari heldu zion. Gau Beltzaren tradizioa aspaldikoa da. Irlandan abiatu eta aldaera ezberdinak izan ditu, mundu zabalean. Gurera etorrita, Euskal Herrira etorrita, ba-

dira tradizio zaharraren aztarnak. Azala eta mamia, biak laburbildu zituzten antzezlanaren amaiera aldera: "Zuek, nor nahi duzue sentitu? Itxi begiak eta pentsatu! Arimak ezin ditugu ikusi, baina gure artean daudela sentituko dugu. Haizea ez dugu ikusten, baina gure masailak laztantzen ditu. Tristura ez dugu ikusten, baina bihotzean mina sentitzen dugu. Poza ez dugu ikusten, baina kilimak sentitzen ditugu sa-belean. Joandakoak pozez eta

maitasunez gogoratu, gau honetan beraiek gu ikusiko bait gaituzte eta guk haiek sentitu. Guri dagokigu galdutakoa berreskuratu eta segida ematea. Aukera gure esku dago! Ez dakigu jai aurretik non gauden, ezta hil ondoren nora joango garen; bizitza honetan garrantzitsuena bizitzea da, beraz, gaur eta orain,... kalabazak hustu, kandelak piztu, beldurra eragin eta iluntasuna bizi! Eguna egunekoentzat, gaua gauekoentzat...!".



Urki dantza taldearen ikuskizuna jendetsua eta parte hartzailea izan zen. AIURRI



Akerrak Okerrak konpainiako kideekin gertuko hartu-emana sortu zen. AIURRI



Urki Dantza Taldekoek, bigarren dantza-saioan, ikusleak gonbidatu zituzten dantzatzera. AIURRI



Arimaren Gauaren aldaera ezberdinak ikus zitezkeen, andoaindarren mozorroetan. AIURRI



Lagun taldean gozatzeko moduko ospakizuna da Gau Beltza. AIURRI



Maizorri txalapartako kideek eman zioten hasiera, ikuskizunari. AIURRI



Une bereziak argazki bidez jasotzeko aroa bizi dugu. AIURRI



Lebiren inguruan jendetza batu zen, Etxeberrieta plazan. AIURRI

Lankide askoren laguntzari esker

Arimen Gaua, Gau Beltza, misteriotsua izan ohi da. Andoingo bigarren edizioa borobila izan zen. Arrakastak, ordea, misteriotik gutxi du. Sekretu bakarra dago: lana. Lankide askoren laguntzari esker atera da aurrera Andoingo ospakizuna

Erredakzioa ANDOAIN

Txokolatea berotzen eta zerbitzatzeko, bide-segurtasuna bermatzeko, beldurraren pasabidea prestatzen eta ilarak zaintzen, taloak prestatzen eta zerbitzatzeko, edariak banatzen, dantzari talde handia bideratzen, antzezlanak prestatzen, Lebiton zezen suzkoa ateratzen... lana gogotik egin duten dozenaka lagunei, eskerrik asko. Ezinbestekoak izan dira.



Larramendi Bazkuneko kideak, 300 talo eskaini eta gero. AIURRI



Kotoiko lagun ugari aritu zen lanean. Eta lanaren ostean, merezitako otordua. AIURRI



109 litro, 545 razio... Batzokiak prestatu zuen txokolate beroa. AIURRI



Beldurraren pasabidea ikusgarria zen, Irunberriko kideen lanaren ondorioz. AIURRI



Segurtasuna bermatzeko lanetan herrikide taldea asko aritu zen. AIURRI



Lebiton konpartsako kideek eman zioten amaiera, ospakizunari. AIURRI



Telletxea, sariduna. AIURRI

Errigorako saskiaren irabazlea

Iker Telletxea (29,500), Eugenio Usarralde (29,460) eta Arkaitz Lasa (29,400) gerturatu ziren gehien, kalabaza tripontziaren pisu zehatzera. 29,700 kiloko pisua zuen, Aiurriko kide batek pisatu zuena. Hark bakarrik zekien pisu zehatza. Ikusmina piztu zuen jolasak, ia ehun lagunek parte hartu zutelako. Eskerrik asko, ahaztu gabe, Aspilla baserriko lagunei! 2024an errepikatuko dugu.



Usarralde, bigarrena. AIURRI



Ikusmina piztu zuen kalabazak.


Ikuslegoak ikusi ez zuena: Gau Beltzaren prestaketa lanak

Pleno aretoak ez ohiko itxura hartu zuen, astearte arratsaldean. Dozenaka haur eta guraso, Urki dantza taldearen eskutik, pleno aretoan elkartu ziren. Aurpegiak margotu eta ikuskizunerako azken prestaketak egin zituzten. Txikienek Karmen Rodriguezen zehaztapenak adi-adi entzun zituzten (1). "Akerrak Okerrak" kale ikuskizuneko partaideak Udaletxearen

barrualdean mozorrotu ziren. Aurpegiak margotzen harrapatu genituen (2). Denbora tarte txikian, dozenaka lagunuen aurpegiak margotu zituzten hainbat gurasok (3). Kotoi elkartean arratsaldean hasi ziren frejitze lanetan. Txistorra, hirugiharra, gazta eta txokolatea. Lau talo zeuden, aukeran. Argazkian, lartza lanean (4). Eguerdian hasita, Irunberri elkarreak eraldaketa

handia bizi izan zuen. Elkarrea eta taberna, biak ala biak, "Beldurraren pasabide" bilakatu ziren. Minutu asko falta zirela, dozenaka haur eta gaztetxo ilaran zain ziren. Argazkia ateratzera joan ginenean, entsegu lanetan ari ziren (5). Batzokia elkartean, bazkalostean hasi ziren txokolate beroaren prestaketa lanetan. Argazkian, San Buenaventura eta Erkizia

txokolatea prestatzeko lanetan ari dira. Une horretan, txokolate beroa Irunberri elkartera eramateko lanetan ari ziren. Irunberriko gaztain beroak ere iritsi ziren Batzokia elkartera (6). Denera, bostehundik gora txokolate edalontzi prestatu zituzten, Batzokian. Iazko kopurua biderkatu zen, ia. Litro gehiago, baina baita ere lan gehiago prestatzen, eta zerbitzatzen.



"Urrutira iritsi nahiko nuke, profesional mailara"

IRATI ARANGUREN ANDOAINGO TXIRRINDULARI ESKOLA

Errepidean, udaberrian eta udan. Ziklo-krosean, udazken-neguan. Urte osoa bizikleta gainean, hamabi hilabetez txirrindularitzaz gozatzen. Eta bidea egiten

Mikel Arberas ANDOAIN

Irati Aranguren hamabost urteko usurbildarra da. Kadete mailako lehen urtean, Andoainera etorri zen. Errepideko txirrindularitzarekin nahikoa ez eta ziklokrosean ere murgilduta dago gaztea. Horrez gain, Europako txapelketan lehiatuko da, duen maila altuaren ispilu. **Gaztea zaren arren, hainbat podium eta lorpen eskuratu dituzu.**

Denboraldian hainbat garaipen eskuratu ditut, beraz, oso gustura nago. Hala ere, lanean jarraitu nahi dut, maila hobetu eta podium gehiago lortzeko.

Irakurlea kokatze aldera, zein lorpen eskuratu dituzu azken aldian?

Errepidean Gipuzkoako txapelketan podiumera igo nintzen. Horrez gain, Gipuzkoako taldekako erlojupeko lasterketan txapeldunak izan ginen. Espainiako Erlojupeko taldekako txapelketan ere parte hartu eta bi urtez jarraian irabazi genuen, kadetean. Modalitatea aldatuta, ziklo-krosean, Euskaldun torneoko garaikurra eman nuen etxera.

Lorpenez asko hitz egiten da, baina horren atzean lan handia dago.

Bai. Askok entrenatu ohi dugu txapelketetara fisikoki ongi iristeko. Normalean, udazkena eta negu artean hasten ditugu entrenamenduak. Esan beharra daukat, eguraldi euritsu zein hotzetan, entrenamenduak gogorrak izaten direla; izan ere, egoera meteorologikoak asko baldintzatzen du txirrindularion entrenamendua. Hala ere, udaberrian, tenperatura igotzearekin batera, entrenamenduak gusturago egiten dira, errazago moldatzen gara. Ondoren, lasterkekin hasten garenean, funtzionamendua apur bat aldatzen da.

Andoaingo Txirrindulari Eskolan entrenatzen al duzu?

Ez. Entrenatzaile pertsonalarekin aritzen naiz, nire kabuz. Entrenamenduak prestatzen



Irati Aranguren. AJURRI

dizkit eta ariketa horiek betetzeko lekuak bilatzen ditut nik. Hori bai, lehiaketetan Andoaingo Txirrindulari Eskolarekin parte hartzen dut.

Ziklokros eta errepide modalitateetan ibiltzen zara. Zein duzu gustukoago?

Errepidekoa. Nire ustez, maila hobea dut, baina ziklo-krosean ere asko gozatzen dut. Esan dai-

"ERREPIDEAN HOBETO NABIL, BAINA ZIKLO-KROSEAN ERE ASKO GOZATZEN DUT"

teke txirrindularitza oso gustuko dudala bere osotasunean.

Emakumezkoen txirrindularitza indartu egin dela uste al duzu?

Bai. Lehen, neska gutxi ikusten zen errepidean. Orain, berriz, askoz gehiago dira bizikletan dabilzanak.

Lehiakortasunari dagokionez, maila handia al dago txirrindularitzan? Oro har, Euskal Herrian maila altua dago. Espainian ere, Euskal Herriarrok onenen artean lehiatu ohi gara.

Etorkizunari begira, zer?

Pausuak gutxinaka ematea gusatuko litzaidake, baina urrutira iritsi nahik nuke, profesional mailara.



Aranguren, Katalunian. ANDOAINGO

Asteburuan, Europako txapelketan

Asteburuan, Frantziako Pont-Château ospatuko den lasterketan ariko da Espainiako selekzioarekin. Andoaingo Txirrindulari Eskolarena eta Euskadiko federazioarena jantzi izan ditu. Eta, orainoan, nazioarteko proban ariko da Irati Aranguren, Espainiako federazioak deituta. Europako txapelketan parte hartuko du, ziklo-krosean.

Espezialitate horretan, Euskadiko zirkuituko lehen proba izan zen Tolosan eta bertan garaile izan zen Aranguren. Bartzelonako Les Franqueses del Valles-en lehiatu berri da. Espainiako kopako proba antolatu zen, eta Andoaingo Txirrindulari Eskolako ordezkaria hirugarren postuan sailkatu zen.

Sasoiko dira UKE eskubaloiko senior mailako taldeak

Bolada onari eusten diote bi taldeek, garaipenen bidean jarraitzen baitute Urrietako senior taldeek. Hirugarren garaipena lortu du, jarraian, Urrietako Artola Harategia senior taldeak. Markagailuak bestelakoa adierazi dezakeen areen, 32-20ko emaitzarekin, lan handia eduki zuten Aritzatalde taldea garaitzeko. Hori horrela, Urrietako Senior taldea Gipuzkoako 1. mailako txapelketako sailkapenaren erdialdean da, lehen postutik 3 puntura. Asteburuan, Urola taldearen kantxan ariko dira.

Urnieta Quel Abogados emakumezkoen senior taldeak, bere aldetik, garaipen berria eskuratu zuen Borda Ardoak taldearen aurka (22-26). Lortutako emaitzari esker, urnietarrek partidarik galdu gabe jarraitzen dute. Ondorioz, Gipuzkoako txapelketako sailkapenaren goikaldean kokatuta daude.

Leizaran eskubaloia

Leizaran Ernio Inmobiliaria taldeak garaipen berria eskuratu zuen Allurralden, Eibarren aurka (26-21). Bigarren dira sailkapenean, hiru garaipen eta bi berdinketekin. Asteburuan Aritzataldearen kantxan ariko dira.

Euskadiko senior emakumezkoen 1. mailan, bestalde, Leizaran Lanbroa taldeak denboraldiko bigarren garaipena eskuratu zuen. Kukulagaren zelaian lortu zituzten bi puntuak (29-32). Emaitza horri esker, Andoaingo taldea laugarren da sailkapenean. Asteburuan, atsedendia izango dute.



andoainDARRA
euskaraz

Irunberriko bertso saioa

Andoingo Kale Nagusiko elkartean laster hasiko dira urteurreneko ospakizunak. Atariko gisa edo, bertso-afaria antolatu zuten aurreko ostiralean. Gertuko saioa izan zen, Punttukaren bidez, bertsolari eta bertsozale ia guztiek elkar ezagutzen baitzuten



Aurreko ostiraleko bertso-afaria, Irunberri elkartean. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Unai Muñoak eta Ander Lizarraldek ofizioa eta elkar zirikatzearena ederki asko menderatzen dituztela erakutsi zuten joan den ostiralean, Irunberri elkartean egin zen bertso-afarian. Punttula Betso Eskolak antolatu zuen. Muñoa Andoingo bertso eskolako irakasle izan zen iraganean, eta horri heldu zioten saioa hasi bezai pronto. Hona elkarri -eta entzuleen artean zeuden zenbait ikasleei kanta-tu zizkieten zenbait bertso. Bertso-aldi osoa aiurri.eus webgunean ikusgai dago, bidez:

Unai Muñoa:

Ni irakasle etortzen nintzen eta jardun gaiak jartzen. Saiatzen nintzen gazte jendea bertsoara erakartzen. Hamar bat urte egin nituen pentsatzen eta pentsatzen, egia esan maite nituen, zergatik ez det ulertzen.

Ander Lizarralde:

Nere ustetan herri honetan harrobi onak badaude. Ta zuk etzenun ezer atera izanik onenen jabe. Kurrikuluma eutsi diezu emaitza onikan gabe. Akaso hori re izango da maisuaren fallua re.

Unai Muñoa:

Zu ze esaten zabilta, Ander, ze komeri, ze arraio. Hemen egiak esango ditut, zintzo izatea nahio. Bertsoan juxtu dakienari asko kosta egiten zaio. Bertsolaria jaio egiten da ta hauek etziren jaio.

Ander Lizarralde

Modu hortako baieztapenik ez nuen usteko bela. Eta ohartu al zara, Unai, zu mintzaturik horrela. Bertsolaria jaiotzen dela ta esaten ari zarela mende Erdiko bertso eskolak ezertako ez direla.

Unai Muñoa:

Bertso eskolek balio dute mantendu dadin ohitura. Mantendu dadin euskal hizkuntza, mantendu euskal kultura. Hauek ez dute bertsoan senik ez planta ta ez itxura. Pinta pixka bat Belokik zeukan, ta bidean geratu da.

Ander Lizarralde:

Jon saiatu zen altzun bezala zeuden bazter denak nasten. Baina ohartu zen azkenian etzuela ezer hausten. Irakaslian kulpa da hori, zuk ez al duzu ikusten? Bera hainbeste ez izateko, deus etzien erakusten.



Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsolariak. AIURRI

Aiurri.eus



HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 2

ANDOAIN Erakusketa

"Argazkiak eta objektuak", Itxaso Mendiluzeren eskutik. Basteroren XX. urteurrena ardatz hartuta. *Ohiko ordutegia, Bastero.*

ANDOAIN Dokumentala

Ama ta Asunak. Erakusketa, dokumentala, hitzaldia. June Baonza Pagaldairen dokumentala. *18:30, Bastero.*

OSTIRALA 3

URNIETA Tailerra

Garbiñe Larreak lzei ukendu baltsamioa egiteko tailer praktikoa eskainiko du. Parte-hartzaileen kopurua mugatua denez, whatsapp bidez eman behar da izena 617 43 57 45 telefono zenbakira deituta. *18:00, Xoxokako eskola.*

ANDOAIN Ospakizuna

Bastero Kulturgunearen 20. urteurrenako ekitaldi nagusia, herriko taldeen parte-hartzearekin. *19:00, Bastero.*

LARUNBATA 4

ANDOAIN Kontzertua

Jarfaiter rap musikaria, zuzenean. Musika alor horretan aski ezaguna da, azkar batean agortu baitziren salmentara ateratako sarrerak. *22:00, Gaztetxea. Sarrerak agortuta.*

**BILBO Manifestazioa**

"Oldarraldiaren aurrean, euskararekin bat, euskaraz bat" izenburupean, Euskalgintzaren Kontseiluak manifestazioa antolatu du. Bat egin dute euskalgintzako hainbat eragilek.

Azaroak 4, larunbata. 15:00, Euskalduna Jauregia. Bilbo

ANDOAIN, URNIETA Manifestazioa

Kontseiluak antolatuta, "Oldarraldiaren aurrean, euskararekin bat, euskaraz bat" izenburupean. *17:00, Euskalduna. Bilbo.*

ANDOAIN Kontzertua

Ibil Bedi taldea, zuzenean. *19:30, Gaztetxea. 8 euro.*

LARUNBATA 11

ANDOAIN Irekiera-ekitaldia


Aita Larramendi kastolak 60 urte beteko dituen egunaren bezperan, Bazkardoko gelei "Juanita Alkain eraikina" izena jarriko diote. Ospakizun gehiago izango dira, azaroan bertan. Besteak beste, ikasle ohien bazkaria. *11:30, Juanita Alkain plazatik Bazkardora.*

IGANDEA 5

URNIETA Partaidetza

Udalak herritarren eskura jarri du ideiak, proiektuak eta proposamenak aurkezteko aukera, 2024ko Udal aurrekontuaren kargu gauzatu daitezzen. *Azken eguna: Azaroak 5.*

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Me he hecho viral**

Lar, 4. 19:30, 22:00.
Ig, 5. 19:30.
Astl, 6. 19:30, 22:00.

El colegio de los animales mágicos 2, el origen

Lar, 4. 17:00.
Ig, 5. 17:00.

O corno
Azaroak 11, 12 eta 13.



SINOPSIS

**Me he hecho viral**

Zuzendaria: Jorge Coira. **Aktoreak:** Blanca Suarez, Nicolas Furtado, Enric Auquer, Miguel Rellan, Cristina Gallego, Esperanza Guardado... **Herrialdea:** Espainia (2023). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Komedia. **Iraupena:** 96 min.

Maitasuna, sare sozialen garaian

Mabel biral bihurtu da. Polinesiarako hegaldian, senarraren mugikorra desblokeatu eta desleialtasunaren froga aurkitzen du. Bere onenetik

aterata, izua eragiten du hegazkinean. Larrialdiko lurreratzea eragiten du. Madrilera itzultzean aski ezaguna da, hegaldiko bideo bati esker.

Egunean Behineko Aiurriko taldeko saria, Aspillako saskia

Asteko partida guztiak jokatzen dituzten "Aiurri" taldeko kideen artean OKM produktu-sorta zozkatzen da

Erredakzioa ANDOAIN

13D denboraldia bosgarren astean murgildu da, eta dagoeneko Aspillako saskiak zozkatzen hasi da Aiurri. "Zulu" izan zen, lehen. Jokalari amorratua da, denboraldiz denboraldi lehiatzen

ari dena. "Mariluz", "Garbiñe" eta "Xomo" izan dira hurrengo irabazleak. Nola eskuratu saskia? "Aiurri" taldeko kidea izan behar da, eta aste osoko partidak jokatuz behar dira. Zozketan zortea izatea besterik ez da falta.



"Zulu". AIURRI



"Mariluz". AIURRI



"Garbiñe". AIURRI

"Familia kide guztiei eskaini nahi diegu lekua euskararen bidean"

Ikasturte berriari begira, eskaintza berriarekin dator Andoaingo Euskararen Normalkuntzarako Batzordea: Euskara-eskolak, Gurasolagun eta Familia lantegiak. Aukera zabala eskola komunitatearen familientzat

Erredakzioa ANDOAIN

"Zure haurra ahalik eta euskal hiztun osatuena izateko funtsezkoa da familiaren, eskolaren eta herriaren gogoak eta baliabideak konektatzea. 2023-24 ikasturte honetan, familiakide guztiei eskaini nahi diegu lekua euskararen bidean, eta horretarako prestatu dugu hemen topatuko duzun eskaintza. Bidaia on!". Andoaingo Euskara lansailaren asmoa argia da, eta norabide horretan eskaintza zabala egiten ari da. Hiru ildo nagusi azpimarratu behar dira.

Euskara-eskolak

Haurrak ikastetxean dauden bitartean eta, ahal bada, ikastetxean bertan, gurasooi euskara-eskolak eskaintzen dizkiegu astean bi egunetan. Euskara mailaren arabera antolatuko dira taldeak, eta komunikatzeko gaitasuna lantzea da helburua. Eskainiko diren ikastaroak doa-koak izango dira.

Gurasolagun

Mintzalagunen formula beretsua da. Batetik, Bidelariak, euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez duten gurasoak. Bestetik, bidelagunak,



Eskaintza zabala eskaintzen du Andoaingo Udalak. AIURRI

bidelagun izan nahi duzun gurasoak. Udalak eredu bat proposatzen du: "Ikasgela edota ikasmaila bereko bi edo hiru haurren gurasoak, aritu zaitzekete euskaraz, zuek adostutako lekuan eta maiztasunarekin, zeuek aukeratutako gaien inguruan".

Familia lantegiak

Guraso, zaintzaile eta beren seme-alabentzat izango da ai-

sialdi eskaintza hori. Helburu nagusia elkarrekin euskaraz aritzen gozatzea da. Hiru adin talde aurreikusi dituzte: 2-3 urtekoak, 4-5 urtekoak eta 6-7 urtekoak.

Informazioa

- E-posta: euskarazerbitzua@andoain.eus.
- Telefonoa: 943 300 831.
- Ikastetxea: Norberarena.
- Udaletxea: Euskara zerbitzua.



Urnieta Igerategi bidea itxita dago.

Hernaniranzko bidegorria itxita, datozen bi asteetan

Igerategi baserriaren ondoan lanetan jardungo du Añarbe Urak erakunde publikoak

Erredakzioa URNIETA

Astelehenez geroztik itxita dago oinezko bide ezaguna. Datozen egunetan, trenbidearen ondoan dagoen Hernaniranzko bidegorriaren zati bat, zehatz mehatz, igerategi baserriaren ondokoa, ezingo da erabili. Izan ere, Añarbe Urak-ek hainbat esku-hartze egin behar ditu herriko ur-horniduran: ponpaketa-estazio bat eraikiko du. Hala, beste hartune elektriko bat egin behar da edateko uraren ponpaketa-estazio berrirako, Lategi auzoko Igerategi industrialdean, Iturbe altzarien ondoan. Bi asteren buruan, lanek aurrera jarraituko dute, baina pasabidea gaituta.

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN

Zorionak bikote!!!

Urtero bezala, hementxe gaituzue, zuei zoriontzeko prest. Jonek urriaren 14ean 28 urte eta Oierrek 21ean, 21 urte bete dituzte. Bizitzaren aurrean, irribarre eder horrekin jarrai dezazuela opa dizuegu. Eskerrik asko gauzen alde positiboa ikusteagatik eta umorez bizitzeagatik. Etxekoak, izugarri maite zaituztegu!!!

Urte askotarako!

- **www.aiurri.eus**
Zorion agurrak atalean.
- **Whatsapp bidez:**
619 16 35 37.
- **Email:**
diseinua@aiurri.eus.
- **Bulegora etorri:**
Arantzibia plaza, 4-5, behea.
Andoain. 943 300 732.

ODOL-EMAILEAK

ANDOAIN

Azaroak 13, astelehena.

16:30-20:30. ANDOAIN, Anbulatorioa Hitzordua hartzeko: 943 007 884.

MERKATU TXIKIA

ALOKATU

Garaje marra alokatuta hartu nahiko nuke Andoaingo Ondarreta auzo inguruan. 660 122 632.



KONTZERTUA Gari&Maldanbera
azaroak 10, **OSTIRALA**, 22:00 Sutegi

ANTZERKIA Kanpora sartzen
azaroak 11, **LARUNBATA**, 20:00 Sutegi

KONTAKIZUNA ETA TERTULIA Usurbil borobil erriean dabil
azaroak 12, **IGANDEA**, 18:00 Sutegi

Sarrerak: alde zuzenetik salgai usurbilkultura.eus plataforman.
Bazkideek prezio berezian eskuratu ahal izango dute sarrera bat Noaualko egoitzan.

NOAUA/KO KULTURALDIA 2023 USURBIL AZAROA

Nafar hegoaldeko
uzta euskarari puzka



Eskatu
saskia!



aek



ikastolenkartea



Sortzen



agerraldia

10 urte bete-bete

50€



urriak 20 - azaroak 9

Balioaren %25 Nafarroa
hegoalde eta erdialdeko
euskaigintzara bideratuko da.

